ARAMAIOKO UDALA
ARABA

Esp. kodea: 2026KIRE0006

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA
PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Aramaioko (Araba) Suña auzoko urbanizazio-proiektuari dagozkion obrak egitea da, 2024ko ekaineko exekuzio-proiektuaren arabera, Ricardo L. Urretxo García eta José Carlos Estébanez Antón teknikariek (Civilarch Consultora) idatzia eta 2026ko abuztuaren 3ko Udalbatzak onartua.

Proiektuak, besteak beste, saneamendu fekal eta euri-uren sareak, ur-hornidura, arazketa-sistema, argiteria publikoa, elektrizitate eta telekomunikazio kanalizazioak, urbanizazioa eta zoladura berritzea jasotzen ditu.

Kontratu-izaera izango dute administrazio-klausula berezien agiri honek, exekuzio-proiektu osoak -PPTP, planoak, neurketak eta aurrekontua barne-, segurtasun eta osasun azterlanak, kalitate-kontrol programak, hondakinen kudeaketa azterlanak, esleipendunaren eskaintzak eta kontratuan berariaz sartzen diren gainerako dokumentuek.

CPV nagusia: 45200000-9.
CPV osagarriak: 45232151-5, 45232130-2, 45233252-0 eta 45231000-5.

Kontratua ez da loteetan zatituko. Sare, instalazio, arazketa, zoladura eta gainerako jarduketak elkarren mendekoak dira eta aldi berean koordinatu behar dira; lote bereizietan gauzatzeak koordinazio teknikoa eta obraren erantzukizun bakarra zailduko lituzke.

Kontratazio-organoa Aramaioko Udalbatza da.

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

I. ASPECTOS GENERALES Y CONFIGURACIÓN DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es la ejecución de las obras correspondientes al proyecto de urbanización del barrio de Suña de Aramaio (Araba), conforme al proyecto de ejecución de junio de 2024 redactado por Ricardo L. Urretxo García y José Carlos Estébanez Antón (Civilarch Consultora) y aprobado por el Pleno municipal de 3 de agosto de 2026.

El proyecto comprende, entre otras actuaciones, redes de saneamiento de fecales y pluviales, abastecimiento de agua, sistema de depuración, alumbrado público, canalizaciones de electricidad y telecomunicaciones, urbanización y renovación de pavimentos.

Tendrán carácter contractual este PCAP, la totalidad del proyecto de ejecución -incluidos PPTP, planos, mediciones y presupuesto-, el Estudio de Seguridad y Salud, el Programa de Control de Calidad, el Estudio de Gestión de Residuos, la oferta del adjudicatario y los demás documentos que se incorporen expresamente al contrato.

CPV principal: 45200000-9.
CPV secundarios: 45232151-5, 45232130-2, 45233252-0 y 45231000-5.

El contrato no se divide en lotes. Las redes, instalaciones, depuración, pavimentación y demás actuaciones son interdependientes y requieren coordinación simultánea; su ejecución separada dificultaría la coordinación técnica y la unidad de responsabilidad de la obra.

El órgano de contratación es el Pleno del Ayuntamiento de Aramaio.

2. JUSTIFICACIÓN DE LA NECESIDAD

Sinatzailea	Alkatea Asier Agirre Mugartza
URL	https://munigex.net/r/0/257/AAAA2M48M.zGLn

Kontratuaren beharra, egokitasuna eta loteetan ez banatzearen arrazoia kontratazio-espedienteko justifikazio-memorian jasotzen dira. Agiri honek memoria horretara eta proiektu teknikoaren justifikaziora egiten du igorpena.

La necesidad e idoneidad del contrato y la justificación de su no división en lotes constan en la memoria justificativa incorporada al expediente, a la que este pliego se remite, junto con la justificación contenida en el proyecto técnico.

3. EGIKARITZEKO EPEA

Obrak egiteko gehieneko epea HAMABI (12) HILABETEKOA izango da, ohiko luzapenik gabe, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kontratistak onartutako epea eta, hala badagokio, onartutako lan-programako epe partzialak bete beharko ditu.

3. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo máximo de ejecución de las obras será de DOCE (12) MESES, sin prórroga ordinaria, contado desde el día siguiente a la firma del acta de comprobación del replanteo.

El contratista estará obligado al cumplimiento del plazo total y de los plazos parciales que, en su caso, se establezcan en el programa de trabajo aprobado.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 1.178.631,79 eurokoa da, BEZa barne. Honela banakatzen da:

- Exekuzio materialaren aurrekontua (PEM): 818.551,14 €.
- Gastu orokorrak (%13): 106.411,65 €.
- Industria-mozkina (%6): 49.113,07 €.
- Guztira, BEZik gabe: 974.075,86 €.
- BEZa (%21): 204.555,93 €.
- Guztira, BEZa barne: 1.178.631,79 €.

Kontratuaren balio zenbatetsia 974.075,86 eurokoa da, BEZik gabe. Ez da aurreikusten luzapenik edo SPKLren 101. artikuluaren ondorioetarako balio zenbatetsia handitzen duen aldaketa aurreikusirik.

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO

El presupuesto base de licitación asciende a 1.178.631,79 euros, IVA incluido, con el siguiente desglose:

- Presupuesto de ejecución material (PEM): 818.551,14 €.
- Gastos generales (13 %): 106.411,65 €.
- Beneficio industrial (6 %): 49.113,07 €.
- Total sin IVA: 974.075,86 €.
- IVA (21 %): 204.555,93 €.
- Total IVA incluido: 1.178.631,79 €.

El valor estimado del contrato asciende a 974.075,86 euros, IVA excluido. No se prevén prórrogas ni modificaciones previstas que incrementen el valor estimado a los efectos del artículo 101 LCSP.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa Aramaioko Udalaren aurrekontuaren kontura finantzatuko da. Gastua urte anitzekoa izango da, eta 2026ko eta 2027ko ekitaldiei egotziko zaie, obren exekuzio-erritmoaren eta gastua onartzeko espedientean ezartzen den urtekoen banaketaren arabera; betiere, aplikatu beharreko aurrekontu-araudian ezarritakoaren arabera kreditu egokia eta nahikoa egotearen

5. FINANCIACIÓN

El precio del contrato se financiará con cargo al presupuesto del Ayuntamiento de Aramaio. El gasto tendrá carácter plurianual y se imputará a los ejercicios 2026 y 2027 conforme al ritmo de ejecución de las obras y a la distribución de anualidades que resulte del expediente de aprobación del gasto, quedando sujeto a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los

mende.

Horrez gain, Udalak obra honetarako kanpo-finantzaketa lortzeko dirulaguntzak eskatzea aurreikusten du, besteak beste, EREIN 2026 laguntza-programaren eta Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren esparruan. Laguntza horiek ez daude gaur egun emanda; beraz, kanpo-finantzaketa aurreikusitakoa da eta dagozkion deialdien eta, hala badagokio, emakida-ebazpenen baldintzen mende egongo da.

Dirulaguntza ez lortzeak ez dio esleipendunari kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea murriztuko, betiere kontratua behar bezala adjudikatu eta gauzatu bada.

términos establecidos por la normativa presupuestaria aplicable.

Asimismo, el Ayuntamiento prevé solicitar subvenciones para la financiación de estas obras, entre otras, en el marco del programa EREIN 2026 y del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava. En la actualidad dichas ayudas no se encuentran concedidas, por lo que esta financiación externa tiene carácter previsto y quedará sujeta a las correspondientes convocatorias y, en su caso, resoluciones de concesión.

La eventual no obtención de la subvención no minorará el derecho del adjudicatario al cobro del precio contractual por las prestaciones correctamente ejecutadas, una vez válidamente adjudicado el contrato.

6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Egindako obrak hileroko obra-ziurtagirien bidez ordainduko dira, obra-zuzendaritzak emanda eta dagokion faktura elektronikoarekin batera. Ordainketak SPKLren 198. eta 240. artikuluetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera egingo dira.

Fakturak formatu elektronikoan aurkeztuko dira Arabako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (https://aramaio.eus/tramite-eta-prozedurak/). Aramaioko Udalaren DIR3 kodeak: organo kudeatzailea L01010035; unitate izapidetzailea L01010035; kontabilitate-bulegoa L01010035.

6. RÉGIMEN DE PAGOS

Las obras ejecutadas se abonarán mediante certificaciones mensuales expedidas por la dirección facultativa y acompañadas de la correspondiente factura electrónica. El pago se realizará conforme a los artículos 198 y 240 LCSP y demás normativa aplicable.

Las facturas se presentarán en formato electrónico a través del punto general de entrada de facturas de Álava (https://aramaio.eus/tramite-eta-prozedurak/). Códigos DIR3, Ayuntamiento de Aramaio: órgano gestor L01010035; unidad tramitadora L01010035; oficina contable L01010035.

7. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspenik aurreikusten, kontratuaren iraupena eta SPKLren 103. artikuluan ezarritako baldintzak kontuan hartuta.

7. REVISIÓN DE PRECIOS

No se prevé revisión de precios en este contrato, atendiendo a su duración y a los requisitos establecidos en el artículo 103 LCSP.

8. BERMEAK

- Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
- Behin betiko bermea: esleipendunak eskainitako azken prezioaren %5, BEZa kanpo. SPKLren 108. artikuluan onartutako

8. GARANTÍAS

- Garantía provisional: no se exige.
- Garantía definitiva: 5 % del precio final ofertado por el adjudicatario, excluido el IVA, que podrá constituirse por cualquiera de los

moduetako batean eratu ahal izango da.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko SPKLren 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta kontratu-betebeharrak behar bezala bete ondoren.

II. KONTRATAZIO-PROZEDURA

9. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ETA IZAPIDETZEA

Kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko da, izapidetze arruntaz, SPKLren 159. artikuluaren arabera. Balio zenbatetsia obretarako prozedura horretarako ezarritako mugaren azpitik dago.

Kontratua ez dago erregulazio harmonizatuaren mende.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazioa bitarteko elektronikoz izapidetuko da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez. Eskaintzak, komunikazioak, errekerimenduak eta jakinarazpenak elektronikoki egingo dira, salbuespen legalik dagoenean izan ezik.

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honetako jakinarazpen eta komunikazio guztiak kontratazio-plataformaren eta gaitutako helbide elektronikoaren bidez egingo dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

12. GAITASUNA, ERREGISTROA ETA SAILKAPENA

Kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta kontratuaren xedearekin bat datorren jarduera-eremua duten pertsona fisiko edo juridikoek.

Prozedura ireki sinplifikatuan parte hartzeko, lizitatzaileak ROLECEn edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen

medios admitidos en el artículo 108 LCSP.

La devolución o cancelación se realizará conforme al artículo 111 LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas correctamente las obligaciones contractuales.

II. PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN

9. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN Y TRAMITACIÓN

El contrato se adjudicará mediante procedimiento abierto simplificado y tramitación ordinaria, conforme al artículo 159 LCSP. Su valor estimado se encuentra por debajo del límite previsto para la utilización de este procedimiento en contratos de obras.

El contrato no está sujeto a regulación armonizada

10. LICITACIÓN ELECTRÓNICA

La licitación se tramitará por medios electrónicos a través de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. Las ofertas, comunicaciones, requerimientos y notificaciones se realizarán electrónicamente, salvo excepción legal.

11. NOTIFICACIONES Y COMUNICACIONES

Todas las notificaciones y comunicaciones del expediente se practicarán a través de la plataforma de contratación y de la dirección electrónica habilitada, conforme a la disposición adicional decimoquinta LCSP.

12. CAPACIDAD, REGISTRO Y CLASIFICACIÓN

Podrán contratar las personas físicas o jurídicas con plena capacidad de obrar, no incursas en prohibición de contratar y cuyo objeto o ámbito de actividad sea adecuado a la prestación.

Para participar en el procedimiento abierto simplificado, el licitador deberá estar inscrito en el ROLECE o en el Registro de Licitadores y

Erregistroan inskribatuta egon beharko du eskaintzak aurkezteko azken egunean, edo, legez onartzen den kasuan, data hori baino lehen inskripzio-eskaera behar bezala aurkeztu izana egiaztatu beharko du.

Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la fecha final de presentación de ofertas o, cuando legalmente proceda, acreditar haber presentado correctamente la solicitud de inscripción con anterioridad a dicha fecha.

Kontratuaren balio zenbatetsia 500.000 eurotik gorakoa denez, Espainiako enpresentzat obra-kontratista gisa sailkatuta egotea nahitaezkoa izango da. Honako sailkapena eskatuko da:

Al superar el valor estimado del contrato los 500.000 euros, será requisito indispensable para las empresas españolas disponer de clasificación como contratista de obras. Se exige la siguiente clasificación:

- **E taldea, 1. azpitaldea, 3. kategoria (E-1-3): Hornidurak eta saneamenduak.**
- **G taldea, 6. azpitaldea, 2. kategoria (G-6-2): Kualifikazio espezifikorik gabeko bide-obrak.**

- **Grupo E, subgrupo 1, categoría 3 (E-1-3): Abastecimientos y saneamientos.**
- **Grupo G, subgrupo 6, categoría 2 (G-6-2): Obras viales sin cualificación específica.**

Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Espainiaz kanpoko enpresei ez zaie sailkapena eskatuko, baina honako kaudimen-baldintza hauek egiaztatu beharko dituzte:

A las empresas no españolas de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo no se les exigirá clasificación, debiendo acreditar las siguientes condiciones de solvencia:

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: azken hiru ekitaldi erabilgarrien artean negozio-bolumen handiena izan duen urteko negozio-bolumena gutxienez 974.075,86 eurokoa izatea.

Solvencia económica y financiera: volumen anual de negocios, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles, por importe igual o superior a 974.075,86 euros.

Kaudimen teknikoa: azken bost urteetan —edo legez dagokion epe luzeagoan— kontratuaren xedearen izaera bereko edo antzeko obrak gauzatu izana; exekuzio handieneko urteko zenbateko metatua gutxienez 681.853,10 eurokoa izango da. Egindako obrak behar bezala gauzatu direla egiaztatzen duten ziurtagirien bidez egiaztatuko dira.

Solvencia técnica: haber ejecutado en los últimos cinco años —o en el período superior que legalmente corresponda— obras de igual o similar naturaleza a las que constituyen el objeto del contrato, cuyo importe anual acumulado en el año de mayor ejecución sea igual o superior a 681.853,10 euros. Las obras se acreditarán mediante los correspondientes certificados de buena ejecución.

Kontratistak proiektuaren arabera obrak behar bezala gauzatzeko behar diren giza baliabideak, baliabide materialak, makinak eta ekipamenduak izan eta kontratuaren exekuzioari atxiki beharko dizkio. Ez da enpresa-sailkapenaz gain gutxieneko baliabide gehigarririk ezartzen kaudimen-baldintza osagarri gisa.

El contratista deberá disponer y adscribir a la ejecución del contrato los medios personales, materiales, maquinaria y equipos necesarios para la correcta ejecución de las obras conforme al proyecto. No se establecen medios mínimos adicionales como requisito de solvencia complementario a la clasificación empresarial exigida.

13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

13. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

Eskaintzak 100 punturen gainean baloratuko dira, osorik automatikoki baloratzekoak diren honako irizpide hauen bidez:

a) Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu gehienez.

Puntuazioa honako formula honen bidez kalkulatuko da:

Pi = 60 × √[(PBL − Oi) / (PBL − Omin)]
non:

— Pi: baloratu beharreko eskaintzaren puntuazioa.
— PBL: lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe: 974.075,86 €.
— Oi: baloratu beharreko eskaintzaren zenbatekoa, BEZik gabe.
— Omin: onartutako eskaintzen artean zenbateko txikiena duen eskaintza, BEZik gabe.

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren pareko eskaintzak 0 puntu jasoko ditu, baldin eta beherapen ekonomikoa duen eskaintzaren bat badago. Onartutako eskaintza guztiek lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren zenbateko bera eskaintzen badute, guztiek 60 puntu jasoko dituzte irizpide honetan.

b) Irizpide sozialak. Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna. Kontratu mugagabeak dituzten langileak kontratua gauzatzera atxikitako plantillan sartzeko konpromisoa, gehienez 10 puntu.

3,33 puntu emango dira kontratu mugagabea duen pertsona bat kontratua gauzatzera atxikitako plantillan sartzeko konpromisoagatik, 6,67 puntu bi pertsona sartzeagatik eta 10 puntu hiru pertsona sartzeagatik. Gehienez ere kontratu mugagabeak dituzten 3 langile hartuko dira kontuan, 10 puntu gehienez, eta modu proportzionalean.

Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna baloratzen dira, eta, beraz, puntuatu egingo dira kontratazioaren xede diren obrak benetan gauzatzera atxikitzen diren langileak, bai enpresa osatzen duten eta, bai kontratazio berriko langileak, betiere bi kasuetan lizitazioaren xedeari atxikitako langileen kontratua mugagabea bada.

Las ofertas se valorarán sobre un máximo de 100 puntos mediante los siguientes criterios, todos ellos evaluables de forma automática:

a) Oferta económica: hasta 60 puntos.

La puntuación se calculará mediante la siguiente fórmula:

Pi = 60 × √[(PBL − Oi) / (PBL − Omin)]
donde:

— Pi: puntuación de la oferta que se valora.
— PBL: presupuesto base de licitación, IVA excluido: 974.075,86 €.
— Oi: importe de la oferta que se valora, IVA excluido.
— Omin: importe de la oferta admitida de menor cuantía, IVA excluido.

La oferta igual al presupuesto base de licitación obtendrá 0 puntos cuando exista alguna oferta que incluya baja económica. Si todas las ofertas admitidas fueran iguales al presupuesto base de licitación, todas obtendrán 60 puntos en este criterio.

b) Criterios sociales. Calidad y estabilidad en el empleo. Compromiso de incorporación del personal con contrato indefinido a la plantilla adscrita a la ejecución del contrato, hasta un máximo de 10 puntos.

Se concederá 3,33 puntos, por el compromiso de integrar a una persona con contrato indefinido en la plantilla adscrita a la ejecución del contrato, 6,67 puntos por dos personas y 10 puntos por tres personas valorándose hasta un límite de integración de 3 trabajadores con contratos indefinidos, con la puntuación máxima de 10 puntos, y así de manera proporcional.

Se valora la calidad y estabilidad en el empleo, por lo que se puntuará tanto por personal que ya forme parte de la empresa, y al que se adscribe a la efectiva ejecución de las obras objeto de contratación, como a personal de nueva contratación, siempre que en ambos casos el contrato del personal adscrito al objeto de la licitación sea de carácter indefinido.

c) Ingurumen-irizpideak: 10 puntu, gehienez.

EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo egiazta daitekeen antzeko ingurumen-kudeaketako sistema bat duten enpresa lizitatzaileei 10 puntu emango zaizkie.

Gaur egun ingurumena kudeatzeko sistema hori indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da.

Enpresa lizitatzaileek, baldin eta ingurumen kudeaketarako sistemarik ezarrita EZ badute, enpresa hornitzaileetan eta obretan erabili beharreko materialen fabrikatzaileetan (hodiak, kutxatilak, hormigoia, asfalto, hormigoia...) sistema horiek ezarrita dauzkatela egiaztatu ahal izango dute (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo baliokideak). Aipatutako sistema ezarrita duen enpresa bakoitzeko puntu bat emango da, eta gehienez ere bost (5) puntu.

Hala eta guztiz ere, aipatutako sistemek, gaiari buruzko ebazpenekin bat etorriz, kontratuaren xedeari lotuta egon behar dute. Lotura hori dagoela ulertuko da kontratatutako prestazioari, edozein alderdiri eta bere bizi-zikloaren edozein etapari dagokionean, zeren horrela ez bada, tratu-berdintasunaren printzipioa urratuko litzateke, eskaintzen arteko diskriminazioa eraginez.

d) Obraren berme-epea luzatzea: 8 puntu gehienez.

Proiektuan ezarritako urtebeteko gutxieneko bermealdiarekiko:

— Luzapenik ez: 0 puntu.
— Urte gehigarri 1: 4 puntu.
— 2 urte gehigarri: 8 puntu.

Beraz, baloratu ahal izango den gehieneko bermealdia hiru urtekoa izango da guztira.

Ez da balio-judizioaren mende dagoen memoria teknikorik eskatuko. Adjudikazio-irizpide guztiak automatikoki baloratuko dira klausula honetan

c) Criterios medioambientales, hasta 10 puntos.

A las empresas licitadoras que cuenten con un sistema de gestión ambiental tipo EMAS, ISO 14001, Ekoscan o de otro tipo equivalente, pero que se pueda acreditar, se les otorgará una puntuación de 10 puntos.

Se ha de presentar certificado acreditativo de la existencia de dicho sistema de gestión ambiental vigente a fecha actual.

Aquellas empresas licitadoras que NO cuenten con sistemas de gestión ambiental implantados en las mismas, podrán acreditar la existencia de la implantación de los mismos (tipo EMAS, ISO 14.001, Ekoscan o equivalentes), en las empresas suministradoras y fabricantes de materiales a emplear en la obra (tubos, arquetas, hormigón, hormigón asfáltico...) a razón de un punto por cada uno de ellos, con un máximo de cinco (5) puntos/empresas.

No obstante lo dicho, los mencionados sistemas, en concordancia con las diversas resoluciones sobre la materia, deben estar vinculados al objeto del contrato; entendiendo que esta vinculación existe cuando se refiera o integre en la prestación contratada, en cualquiera de sus aspectos y en cualquier etapa de su ciclo de vida, y ello porque, de otro modo, se estaría lesionando el principio de igualdad de trato dando lugar a una discriminación entre las ofertas.

d) Ampliación del plazo de garantía de la obra: hasta 8 puntos.

Sobre el plazo mínimo de garantía de un año establecido en el proyecto:

— Sin ampliación: 0 puntos.
— 1 año adicional: 4 puntos.
— 2 años adicionales: 8 puntos.

Por tanto, el plazo máximo de garantía valorable será de tres años en total.

No se exigirá memoria técnica sometida a juicio de valor. Todos los criterios de adjudicación serán evaluados automáticamente mediante las reglas y

ezarritako arau eta formularen bidez.

e) Hobekuntzak: 12 puntura arte.

Baloratu egingo da Suña auzoko edateko uraren hornidura-sarean teleirakurketa-sistema bat ezartzea.

Suña auzoan dauden kontagailuak ordeztea hobetzeko eskaintzen duten enpresei 12 puntu emango zaizkie, baldin eta horrek gainkostua ez badakar eskainitako prezioan.

Teleirakurketa-sistema horrek elementu hauek izan beharko ditu:

- Dauden emari-neurgailu guztien ordez hari gabeko IoT konexioa duten emari-neurgailu berriak jartzea.
- Instalatu beharreko kontagailu berriak kontagailu integratu bolumetrikoak izango dira, 13, 15 mm Q3 = 2,5 m³/h eta 20 mm Q3 = 4 m³/h arteko diametroak dituztenak. Neurketa-ekipoek hari gabeko komunikazio integratua izango dute kontagailuaren gorputzean, protokolo anitzeko urruneko komunikazio-gailuekin (LoRaWAN/wMBus).

  Instalatutako kontagailuek datu indibidualizatuak eta behar bezala identifikatutakoak eman beharko dituzte, hala nola irakurketa denbora errealean, irakurketen historikoa, ihesak detektatzea, iruzurrak eta manipulazioak, bateriaren egoera eta antzekoak.

  Aramaioko Udalari beharrezko informazioa, lizentziak eta softwarea eman beharko zaizkio moduluei sarean alta eman ahal izateko, moduluekin komunikatu ahal izateko eta irakurketei, alarmei eta abarri buruzko informazioa lortzeko.

  Hornitutako neurketa-ekipo guztiek 244/2016 Errege Dekretuan eta UNE-EN-ISO-4064 arauan jasotako baldintza metrologiko hauek bete beharko dituzte:

la fórmula establecidas en esta cláusula.

e) Mejoras, hasta 12 puntos.

Se valorará la implantación de un sistema de telelectura en la red de abastecimiento de agua potable del barrio de Suña.

Se otorgará la puntuación de 12 puntos a las empresas que oferten como mejora la sustitución de los contadores existentes en el barrio de Suña, si que esto suponga un sobrecoste en el precio ofertado.

Este sistema de telelectura deberá incluir los siguientes elementos:

- Sustitución de todos los caudalímetros existentes por nuevos caudalímetros con conexión inalámbrica IoT.

  Los nuevos contadores a instalar serán contadores integrados volumétricos de diámetros comprendidos entre 13, 15 mm Q3 = 2,5 m³/h y 20 mm Q3 = 4 m³/h. Los equipos de medida tendrán una comunicación inalámbrica integrada en el cuerpo del contador con dispositivos de comunicación remota multiprotocolo (LoRaWAN/wM-Bus).

  Los contadores instalados deberán proporcionar datos individualizados y debidamente identificados, como lectura en tiempo real, histórico de lecturas, detección de fugas, fraudes y manipulaciones, estado de la batería y similares.

  Se deberá facilitar al Ayuntamiento de Aramaio la información, licencias y software necesario para poder dar de alta los módulos en la red, comunicarse con los módulos y obtener información sobre lecturas, alarmas, etc.

  Todos los equipos de medida suministrados deberán cumplir las siguientes condiciones metrológicas recogidas en el Real Decreto 244/2016 y en la norma UNE-EN-ISO-4064:

- IP68 babes-maila izan behar dute, CEI 60529 "Degrees of Protection" nazioarteko arauaren arabera, hautsaren (hautsaren aurkako babes osoa) eta likidoen (uretan erabat eta etengabe murgiltzea) aurka.

- Gutxienez 16 bar-eko presio nominalerako prest egon behar da.
- Presio maximoaren galerak ez du gainditu behar 0,63 bar-etik Q3ra.
- Bermatzea ez dela akats esanguratsurik gertatuko nahasmenduen eraginpean dagoenean, ISO 4064 arauan deskribatzen diren moduan.
- Uraren tenperatura-tarteak gutxienez 0,1 ° Ctik 30 ° C-ra arteko tartea hartu beharko du.
- Babes-mekanismo egokiak izango dituzte, manipulatzeko ezintasuna bermatzeko.

- Neurketa-ekipoak (komunikazioa eta neurketa) behar bezala funtzionatzeko behar den elikadura elektrikoa barne-bateriaren bidez egingo da. Bateria horrek gutxienez HAMABI (12) URTEKO iraupena izan behar du aparatuaren bizitza erabilgarritik, zenbait neurketa-tresnaren Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duen otsailaren 7ko ICT/155/2020 Aginduarekin bat etorriz.

- Deben tener un nivel de protección IP68, según la norma internacional CEI 60529 "Degrees of Protection", frente al polvo (protección contra el polvo total) y los líquidos (inmersión total y continua en el agua).
- Estar preparado para una presión nominal mínima de 16 bar.
- La pérdida de presión máxima no debe superar los 0,63 bar en Q3.
- Garantizar que no se producen errores significativos en la exposición a trastornos tal y como se describen en la norma ISO 4064.
- El intervalo de temperatura del agua deberá abarcar al menos entre 0,1 y 30 ° C.

- Dispondrán de mecanismos de protección adecuados para garantizar la imposibilidad de manipulación.
- La alimentación eléctrica necesaria para el correcto funcionamiento del equipo de medida (comunicación y medición) se realizará mediante batería interna. Dicha batería deberá tener una duración mínima de DOCE (12) AÑOS desde la vida útil del aparato, de acuerdo con la Orden ICT/155/2020, de 7 de febrero, por la que se regula el control metrológico del Estado de determinados instrumentos de medida.

14. ESKAINTZA ANORMALKI BAXUAK ETA BERDINKETA

Anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko, eskaintzaren osagai ekonomikoa hartuko da funtsezko erreferentziatzat, prezioaren arabera zuzenean adierazten den irizpidea delako eta adjudikazioko 100 puntuetatik 60 puntu hartzen dituelako.

Eskaintza baten osagai ekonomikoa Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan ezarritako kasuren batean dagoenean, eskaintza hori anormaltasun-presuntzioan dagoela ulertuko da.

Parametro horiek berariaz ezartzen dira agiri honetan, SPKLren 149.2.b) artikuluaren ondorioetarako.

14. OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS Y DESEMPATE

A los efectos de identificar las ofertas incursas en presunción de anormalidad, se atenderá fundamentalmente al componente económico de la oferta, por ser el criterio directamente expresado en términos de precio y representar 60 puntos sobre los 100 puntos totales de adjudicación.

Se considerará incursa en presunción de anormalidad la oferta cuyo componente económico se encuentre en alguno de los supuestos establecidos en el artículo 85 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

La aplicación de dichos parámetros se establece expresamente en el presente pliego a los efectos

Gainerako adjudikazio-irizpideek ez dute, berez, eskaintza anormaltasun-presuntzioan dagoela zehaztuko. Hala ere, parametro ekonomikoa aplikatzearen ondorioz eskaintza bat anormaltasun-presuntzioan dagoenean, haren bideragarritasuna eskaintza bere osotasunean hartuta aztertuko da, eta bereziki kontuan hartuko dira kontratuaren exekuzioari atxikitako kontratu mugagabeko langileei buruzko konpromisoak, berme-epearen luzapena eta teleirakurketa-sistema ezartzeko hobekuntza.

Kasu horretan, Kontratazio Mahaiak SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetuko du eta lizitatzaileari bere eskaintzaren bideragarritasuna arrazoituta eta zehaztasunez justifikatzeko eskatuko dio, eskainitako prezioa eta kostuak eta hartutako gainerako konpromisoetatik eratorritako kostuak barne.

Anormaltasun-presuntzioak ez du eskaintza automatikoki baztertzea ekarriko. Aurkeztutako justifikazioa eta dagokion aholkularitza teknikoa aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintza onartzeko edo baztertzeko proposamen arrazoitua egingo dio kontratazio-organoari, SPKLren 149. artikuluaren arabera.

Berdinketa gertatuz gero, SPKLren 147.2 artikuluan ezarritako berdinketa hausteko irizpideak aplikatuko dira, bertan ezarritako hurrenkeran.

15. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari lagunduko dio adjudikazio-prozeduran.

Kontratazio-organoak zehaztuko du haren osaera, SPKLren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da mahaia eratu aurretik. Nolanahi ere, aholkularitza juridikoaren eta kontrol ekonomiko-aurrekontarioaren eginkizunak esleituta dituzten pertsonen parte-hartzea bermatuko da, SPKLn ezarritakoaren arabera.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

del artículo 149.2.b) LCSP.

